

**UDALAREN GARABI-ZERBITZUAK LAGUNTZA PARTIKULARRA EMATEAREN TRUKE ORDAINDU BEHARREKO
PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA**

13. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Prezio publikoak ibilgailuak eraman edo tokiz mugitzeko Udalak kontratatutako garabi-zerbitzua erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu beharko dituzte.

Sortzapena

3. artikulua.- Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra zerbitzua ematen noiz hasi eta orduan sortzen da.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

4. artikulua.- Zerbitzua eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da Herritarren Segurtasuneko Alorraren bulegoetan, eta zerbitzua emanen da baldin eta une horretan emateko aukerarik bada.

5. artikulua.- Prezio publikoa Herritarren Segurtasunerako Alorreko bulegoetan jarritako eskudirutako kutxetan ordainduko da, eranskineko tarifak aplikatuz egiten den likidazioaren arabera. Hura ordainketa egiten den unean jakinaraziko da.

Tarifak

6. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak arau honen eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

TARIFA-ERANSKINA

- Garabi bakoitzeko, ordu edo zatiki bakoitzeko	62,50 euro
---	------------